


/// ///

IGARTUBEITI

BASERRI MUSEOA



IGARTUBIZIA

... FERMIN LEIZAOLAren ESKUTIK

Fermin Leizaola ondarearen ikerketan urte asko daramatzen donostiar etnografoa da. Gaur egun Arantzadi Z E ko Etnografi Saila zuzentzen du eta Eusko Ikaskuntzako kidea da. GFAk burututako Zaharkinak egitasmoko egilea eta koordinatzailea da. Eguneroko objektuak bilduz inbentario etnografikoa osatu asmoz.

Irakaskuntzan ere aritu da eta GFArako material higigarri izugarria biltzen aritu da.

Artzain kulturari buruz, nekazaritzari buruz, arkitekturari buruz, kultura higigarriari buruz ikerketa lan ezberdinak argitaratu ditu.

Ikasleekin egiten zituen irteeretan Igartubeiti zen erreferentziako bisita Harreman horretatik baserriaren zaintzan laguntzea pentsatu zuen, gaur egun museo honetaz gozatzea ahalbidetu duen egitasmoa bultzatuz. Igartubeitin, Mendiguren familia eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean ararteko lanak egin zituen.

Nola eta noiz ezagutu zenuen Igartubeiti?

Igartubeiti duela 50 bat urte ezagutu nuen. Gipuzkoatik egiten nituen ibilbideetan liluratu ninduen baserri honek zuen jatorrizko egiturak.

Beti argazki kamara batekin edo birekin ikusten zaitut, zenbait argazki dituzu?

Duela 57 bat urte hasi nintzen argazkiak ateratzen eta argazki analogikoz osatutako artxiboa daukat, asko paperean, guztira 300.000 bat (...). Interesatzen zaidana da arlo etnografikoak, paisaia, lursailaren erabilpenen alderdiak azaltzea, baita arkitektura, Euskal Herrian eta beste inguruetan burutzen diren nekazaritzari, abelazkuntzari, artzaintzari edo basoari lotutako zeregin desberdinak ere.

Ba al dago baserrian zuretzat balio berezia duen objekturik?

Niretzat, Igartubeiti Baserria bera zen objektua, ia aldaketarik jasan gabe, egurrezko egiturarekin eta aurrealdeko zuraje itxitura txundigarriarekin, guregana mirari bat bezala iritsitako eredu bikaina (...)

Ezkio Itsason Zaharkiñak ere izan zen, Igartubeitirentzat hazia izan zitekeena

(...) Ezkio Itsason ere egin genuen, duela urte batzuk eta objektu asko bildu ziren (...) nekazaritza-tresnak, gurdia, gurdi zorrotza, saltoko gurdia, lerak, garia garbitzeko makina, garia jotzeko makina, tamainaz eta pisuz sekulako tramankuluak.

Bertako baserrietako objektu asko bildu ziren eta jendeak gozatu egin zuen. Herria batzea lortu zuen (...).

Zein objektu edo eraikuntza gustatuko litzaizuke zaharberritua ikustea?

GFAk azken 33 urte hauetan ondare higigarri zein higiezina berreskuratzen ahalegin itzela egin du, Gipuzkoako Ondare Higiezina izeneko liburuan biltzen den ondare higiezinaren inbentario oso garrantzitsua egin da (...).

Igartubeiti baserriko historiari buruz eta ondareari buruz hitzegiteko zein pertsona gomendatuko zenidake elkarrizketatzea ?

(...) Arkitektoak zein beste pertsona batzuk oso zaharberritze ederra, historikoa burutu dute (...)

Pozgarria da niretzat lan egin izana Aldundia konturatu zedin Igartubeitik balioa zuela, mantendu eta zaharberritu behar zela eta balioan ipini behar zela.... Benetan harrigarria den habe dolarea eta XVI. mendetik gaur egunerarte erabili izan diren objektu multzo guztia.

(...) Belaunaldi berriak elementu autartikoa zen gunehorretan nekazaritza unitate bat nola mantentzen zen ikus dezakete, non, artisautza, saskigintza, sagardogintza. Gaztainak biltzen ziren, artoa sartu ondoren arto zuriketa egiten zen suaren ondoan edo atarian, non pertsona guztien artean edozertza hitzegiten zen, transmititzen zen ...

Zuhaitz Akizuk egindako elkarrizketa



Fermin Leizaola kultur irteera batean